

FUNTSEZKO JARDUERAK

Baliozko proposamenean ezarritutakoa berreskuratuz gure enpresaren ideiarene asmoa **gizartea humanizatzea** da, historia bizi izan zutenen larruazalean modu ludikoan ikasiz. Gainera, alternatiba lehiakor bat eskaintzen dugu, ibilbide osoa itxita dagoela eta, zure kabuz bidaia antolatzea baino askoz ere merkeagoa izango lirateke. Bestalde, bidaia pertsonaia historiko batek egindako ibilbidean oinarritzearen originaltasuna eskaintzen dugu. Beraz, konpontzen ari garen arazoa edo beharra honakoa da: historia gizarte orokorrari hurbiltzea, bidaia erraz eta erabat antolatuen bidez, eta ez dadila buruhauste bat izan bidaia horiek egin ahal izatea, prezio eskuragarriekin. Bestalde, komunitate bat ere osatu nahi dugu, eta, horien artean, bidean zehar esperientziak partekatzea eta laguntzea.

Gure helburu hori lortzeko gure enpresak hainbat alde zurretik ezarritako jardueren bidez funtzionatuko du, aurreko atalean sakondutako baliabideen bidez bereganatuko ditugunak. Jarduera guztiak ez daukate garrantzi edo funtzio berdina eta garrantziaren araberako hierarkia batean antola daitezke hauek:

1. Modu progresiboan lan egitea.
2. Antolaketa zehatza, ona eta ondo neurtuta.
3. Sektorearen ezagutza duten enpresekin lankidetzaz ezartzea.
4. Langile kualifikatuak, turismo-sektorea ondo ezagutzen dutenak eta hauekin erlazio estua ezartzea.
5. Bezeroekiko antolakuntzaren informazioa era errazean helaraztea.
6. Bezeroekiko harreman estua eta lagungarria.
7. Segurtasunaren bermaketa.

Enpresa txikia gara, beraz, **ez dugu hasierako kapital nahikorik izango gure proiektua nazioartean hedatzeko**. Hori dela eta, eskainiko ditugun lehen ibilbideak, izaera nazionalekoak izango dira, "Isabel la Católica" bezalako ibilbideekin.

Konsumitzaileei gure zerbitzuak liluratzen dizkiete, estatistiek erakusten duten bezala. Pixkanaka, kapital gehiago eskuratu nahi dugu, enpresa gisa hobetu ahal izateko, marketina bezalako esparruetan eta gure bezeroengana zuzentzen garen moduan.

Baina urrunago iritsi nahi dugu, hau da, munduko hainbat lekutara. Horretarako, hainbat diru-laguntza eskatu ditugu, bai estatukoak, autonomikoak eta baita udalerrikoak ere. Adibidez, Espainiako Gobernuak autonomoentzat emandako diru-laguntzak, Kantabriako Gobernuak ekintzaitzeta sustatzeko ahaleginean emandakoak, besteak beste... Beharrezko kapitala eskuratuz, lehen esan

dugun bezala, hedatzeko unea da. Europa mailan hasi nahi dugu, "Anna Frank" edo "Julio Cesar" ibilbidekin. Ondoren, kontinente artera zabaltzea nahi dugu, "José y María de Nazaret " ibilbidearekin, eta laster ibilbide amerikar bat abiatuko dugu, Charles Darwinena , hain zuzen ere. Enpresa gisa, hazten eta hobetzen jarraitzea espero dugu, gure bezeroei zerbitzu hobea emateko eta, horrela, historia guztioi helarazteko.

Bestalde, gure indarretako bat gure **ibilbideen plangintza** da, izan ere, leku bakoitzean gauden denbora guztia aprobetxatzen dugu, egiteko dauden jarduera guztiak eskainiz. Hori ez ezik, denbora libre ere eskaintzen dugu, pertsona bakoitzak bere kabuz esploratu ahal izan ditzan hiriak. Nolanahi ere, gure plangintza oso zehatza da, eta oso neurtuta dago, momentu guztiak aprobetxatu ahal izateko segundo bat ere galdu gabe, baina, era berean, bidaiaz gozatuz.

Era berean, oso garrantzitsua da **sektorea ondo ezagutzen duten** eta enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoak diren puntuekin zubiak ezartzen lagun diezaguketuen hainbat **enpresarekin** elkartuta lan egitea. Enpresa horiek funtsezkoak dira, ondo antolatutako enpresa baten oinarriak eraikitzeke oinarri bat eskaintzen baitigute, bitartekariak bezala funtzionatuz.

Gure enpresan berebiziko garrantzia du gure **langileen profesionaltasunak**. Hori guztiak, bakoitza ezagutzaren arlo desberdinetan, turismoaren sektorean adituak dira. Denek ondo baino hobeto dakite lan egiten duten eremuan, gure bezeroei lasaitasuna bermatuz.

Gure enpresaren beste indargune bat da gure **bidaiari buruzko informazio** guztia ahalik eta argien eskaintzen dugula. Horretarako, web orri oso bisual bat sortu dugu, publiko orok uler dezan. Era berean, Internet erabiltzen ez dakitenek bidaietan parte hartzeko panfletoak eskaintzen ditugu.

Enpresa txikia garenez, lehen esan bezala, erraza da **harreman estua ezartzea gure bezeroekin**, enpresa fidagarritzat har gaitzaten, gure zerbitzuak erabiltzeko zalantzarik izan ez dezaten. Bezeroak gure enpresan ondo integratuta badaude, komunitate berezi bat sor dezakegu, eta hori helburu bat da.

Gure enpresan lan egiten duten abokatuak **gure bezeroen segurtasuna bermatzeaz** arduratzen dira atzerriko herrialdeetan, eta, kasu larrietan dauden herrialdeko bitartekariekin hitz egiteko prest daude, gure bezeroen arazoak konpontzeko.